

ESPERIMENTAZIOARI BURUZKO PROIEKTUAK

ARABA

ASOCIACION DE REINSENCION SOCIAL SARTU ALAVA

Helbidea: Errege Atea, 20, 01001 Vitoria-Gasteiz

Telefonoa: 945 128061

Helbide elektronikoa: sartualava@alava.sartu.org

Bloguntariado

Helburua:

Gizarte partaidetza aktiboa eta boluntariotza egin nahi duten emakumeen eta laguntza eta baliabide teknologikoak behar eta eskatzen dituzten elkarte eta gizarte-erakundeen arteko lotura sustatzea.

45 urtetik gorako emakumeentzat, luzaroko langabeentzat, guraso bakarrekentzat eta migratzaileentzat.

Trebakuntza teknologikoaren bitartez, emakume boluntarioentzat prozesu bat ezartzea, eta horrela, haiek laguntzea elkarrekin egindako ekintzen ikusgaitasuna hobetzen..

Elkarrekiko ezagutza eta harremana erraztea, emakumeen eta elkarten artean, sinergia berriak sortuz elkar ahalgaitasun ahal izateko.

GIPUZKOA

DAITEKE-CAREERS & JOBS SL

Helbidea: Urdaneta kalea, 18, 20006 Donostia

Telefonoa: 943 430 312

La memoria del recuerdo. Estrategia para aprender a transferir conocimiento en la fase de envejecimiento

– Helburua:

Narriadura kognitiboaren prebentzioarako estrategia lantzea, oroimena landuz, erlazio-sareen indartzea azpimarratuz, eta adinekoen isolamendu soziala murrizten lagunduz, eta belaunaldiarteko osagarriak nabariak izango dira. .

Erretiratuaren elkarteetan edo/eta egoitzetan 55-56 urtetik gorakoek kontatutako ahozko istorio topaketak. Gero, bukaeran, haien bizipenak 12 eta 16 urte bitarteko gazteei aurkeztuko zaizkie ikus-entzunezko formatuan.

CIDEC ELKARTEA

Helbidea: Txingurri Pasealekua, 28, 20017 Donostia.

Telefonoa: 943 42 52 57

Diagnóstico e implantación del uso de metodologías de aprendizaje para personas adultas en dispositivo móvil en el País Vasco: ¿una nueva brecha digital generacional?

– Helburua:

Euskadiko formakuntza zentroetan, gailu mugikorretan eta teknologia-euskarri eta -baliabideetan oinarritutako irakaskuntza-ikasketa metodologiaren garapena eta ezarpena diagnostikatzea. Metodologia hauek helduei zuzenduta egongo dira, kualifikazio baxua daukatenak barne.

Euskarri hauen erabilera bultzatzea, kualifikazio baxua daukaten helduen artean irakaskuntza-ikasketa malgutzeko.

ORIENTAZIOA 4.0 Emakumeen prestakuntza- eta lanbide- orientazioa indartzeko estrategiak, 4.0 jarduera eta enpleguarekikoak

– Helburua:

Lanbide-orientazioaren eremuan, formakuntza eta enplegua 4.0 esparruan hain zuzen ere, Euskadin gauzatzen ari diren bokazio zientifikoa eta teknologikoa piztera bideratutako estrategiak (emakume-kolektiboarentzat, espezifikoki) diagnostikatzea eta indartzea..

Lanbide-orientazioa indartzea ikuspuntu ez-sexista kontuan hartuta, eta honela, Gipuzkoan 4.0 enpleguetan dagoen emakume eta gizonen arteko lan-arrakala murriztea.

MAKINA-ERREMINTEN HEZKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA.

Helbidea: Azkue Auzoa 1, 20870 Elgoibar Gipuzkoa

Telefonoa: 943 74 41 32

Lan gaitasun berritzaileen behatokia / Observatorio de competencias laborales emergentes

– Helburua:

Lanbide Heziketako hasierako formakuntza daukaten helduentzako irakaskuntza-ikasketa metodologia baten diseinua betetzeko proba pilotua egitea. (Pertsona hauek lanean ari direnez, birziklatzeko arazoak eduki ditzakete).

Orientazio prozesua ardaztuko da goraka ari diren eta ziur aski epe labur-ertainean eskaera edukiko duten gaitasunen profiletan (gaitasun horiek lan merkatuan berriak dira, Industria 4.0 barne).

Desarrollo personal y profesional de personas mayores de 55 años

– Helburua:

Formakuntzaren bitartez, hobekuntza jarraituari begirako oinarritzko gaitasun instrumentalak garatzea eta honela, eskualdeko gizarte ingurunean lan hobekuntzaren eta lan-munduan txertatzeko helburuari erantzuna ematea. Hori guztia 55 urtetik gorako pertsonen moldatuta.

CEBANC SA

Helbidea: Berio Pasealekua, 50, 20018 Donostia, Gipuzkoa

Telefonoa: 943 31 69 00

HELDUTEK: Las tecnologías al servicio de la autonomía de las personas mayores

– Helburua:

“Modu independentean bizitzea” kontzeptuan oinarritutako formakuntza programa bat garatzea, ordenagailu pertsonal edo smartphoneen erabilerarekin lotuta.

Eten digitalaren hutsunea betetzea (handiagoa emakumeen artean). Horretarako, irakasle/formatzaile/boluntario/zaintzaileentzako formakuntza programak sortuko dira, blended learning irakaskuntzaren formatuarekin (mistoa). Programa hauek pertsonal sanitarioa trebatzeko edo, zuzenean, adineko pertsonak formatzeko erabilgarriak izango dira.

GUREAK LANEAN SA

Helbidea: Illarra Bidea 4 20018 Donostia Gipuzkoa

Telefonoa: 943000800

Diseño de metodologías adaptadas a personas con discapacidad para adquirir conocimientos basados en estrategias de educación Steam

– Helburua:

Talde eta banakako ikaskuntza prozesuan desgaituen parte-hartzea sustatzea, haien sormena piztuz STEAM proiektu berritzaileak sortzearen bitartez..

Desgaituak ahalduntzea. Pentsamendu kritikoa eta arazoen konponbidea bultzatzea.

BIZKAIA

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV / EHU - Bilboko Ingeniaritza Eskola Helbidea: Euskal Herriko Unibertsitatea Rafael Moreno "Pitxitxi" Pasealekua, 3, 48013 Bilbao, Bizkaia

Telefonoa: 946 01 44 31

IEK Proiektua

– Helburua:

Graduaren amaierako lana egin behar duten ikasleen eta enpresetako seniorren artean belaunaldi arteko ezagutzaren transferentzia. Ingeniaritzako ikasleak izango dira, hain zuzen ere. Seniorrek haien enpresetan edo eskarmentuan sortutako erronkak proposatu eta ikasleek konpondu beharko dituzte.

Azaro Fundazioa

Helbidea: Xemein Hiribidea, 12-A, 48270 Markina-Xemein, Bizkaia

Telefonoa: 946 16 91 72

Talentua sortu & mantendu

– Helburua:

Lea-Artibai eskualdeko hainbat kolektiboren ezagutza (enpresetako langileena, kooperatibistena, erretiratuena, ikasleena gurasoena, irakasleena, orientatzaileena, kooperatibetan giza baliabideen zuzendariena, ...) Lea-Artibai eskualdeko gazteei belaunaldi arteko ezagutzaren transferentzia. Lea-Artibai zonako ikastetxeetan Lehen Hezkuntza eta Lanbide Heziketa bitarteko ikasleak helburu izango dira.

Horretarako, kooperatiben eta ikastetxeen arteko elkarlanean egindako proiektu bat zehaztuko da, ikasleak formakuntza ibilbide osoan zehar kooperatibekin harremana eduki dezaten.